

UDAN EUSKARA LANTZEKO BALIABIDE SORTA



HABEren DOKUMENTU BILTEGIA

- [Ikasbil](#): Dokumentu biltegia (mailakatutako testuak, ikusentzunezkoak, jarduera didaktikoak...)

GRAMATIKA LANTZEKO ARIKETAK

- [Ikasten \(ikasbil\)](#)
- [Santurtziko euskaltegia](#)
- [Euskarazko hasiera mailako testa](#)
- [Gramatika ariketak](#)
- [deklinabidea.ikaeuskaltegiak.eus](#) ariketak, deklinatu hitza, taulak...
- [ortografia.ikaeuskaltegiak.eus](#) ariketak, kontsulta...
- [Ariketa bankua](#)
- [Iparra.eus](#): Euskara ikasi edo hobetzeko hainbat webgune interesagarri.
- Hitz berriak ikasteko 10 metodo: [Ikasbil](#) / [Maritxuberritxu](#)

BIDEO DIDAKTIKOAK

- [Kerman mintzalagun bila](#)

PRENTSA

- [Berria egunkaria](#)
- [Zuzeu.eus](#): Orainkari digitala: albisteak, iritziak...
- [Hala Bedi irratia](#): Gasteizko irrati librea
- [Tokikom](#): Euskarazko 66 toki-komunikabidek osatutako sarea

ALDIZKARIAK

- [ALEA](#)
- [HABE aldizkaria](#)
- [AIZU](#)
- [Gaztetzulo](#)
- [Arqia astekaria](#)
- [Ttap](#): sakelakorako aldizkaria.
- [Sustatu](#): Teknologiarekin lotutako albisteak.
- [Zientzia.eus](#): Zientziarekin lotutako albisteak, irratsaioak...

PODCASTAK

- [Podcastak](#): Irratsaioetatik ez datozen euskarazko podcast independenteen webgunea.

GOZATU SAREAN EUSKARAZ (AISIALDIA ETA KIROLA)

- [Gozatu sarean euskaraz](#): Aisialdian eta kirolean euskaraz gozatzeko baliabide digitalak: webserieak, webguneak, aplikazioak, mugikorrerako jolasak...
- [Euskal tribiala](#)
- [Kahoot!](#): Ikasgelan zein etxean galdetegi bitartez lan egiteko eta ikasteko tresna.
- Emotikonoak: [Hizkuntzarekin jolasean](#) / [Mintzalasai](#)

ZINEMA

- [Azpituduluak](#): Filmak euskarazko azpidatziekin.
- [Euskal-encodings](#): Euskarazko filmak, telesailak, marrazki bizidunak...

Euskal-encodings webgunean gustu eta mota guztietako film, telesail eta dokumentalak daukazu. Onena zure gustukoak aukeratzea daukazu, nolahi ere, hona hemen proposamen interesgarri batzuk:

Filmak:

- [Ane](#): Lide Gasteizen bizi den ama banandua da. Etxebizitza batzuk desjabetu zirenean istiluak izan ziren auzoan, Ane alaba nerabeak ez duela gaua etxean igaro jakingo du eta bere bila hastea erabakiko du. Laster konturatuko da ezezaguna ere badela.
- [Erlauntza](#): Txikitako lagun koadrila bat asteburu pasa joango da landetxe batera beraietako baten ezkon aurreko agurra ospatzera. Urteak ordea ez dira alferrik pasatzen eta elkarren arteko lotura estua sentitu arren, ezer ez da garai batean bezala; edo bai... Asteburu "eroa" izan behar zena, are gehiago erotuko da; trapu zaharrak, esan gabeko gauzak, esandakoak, alkohola, droga eta erlauntza bat. Esaten da erleak direla animalien erreinuan hobekien komunikatzen diren izakiak. Eta dantzan komunikatzen omen dira...
- [Hil kanpaiak](#): Garizmendi baserrian giza hezur batzuk agertu dira. Zer egin ezean, Fermin eta Karmen senar-emazteek Nestor semeari deitu diote eta honek, berriz, Ertzaintzari. Hauek heltzerakoan hezurak desagertu dira. Segidan, hil kanpaiak joka hasi dira auzoko basilan. Zantzu txarreko seinale honek, gertaera latzak ekarri ez ezik, familiaren eta inguruko garai bateko zauriak irekiko ditu,
- [Soinujolearen semea](#): AEBetara joan zen bizitzera David eta orain hilzorian dago. Josebak, txikitako lagun minak, bisita egingo dio eta horren bidez, bien iragana erreparatuko da. Frankismoa, ETAn izan zuten parte hartzea, Gerra Zibilaren oihartzunak, tortura, traizioa...
- [Handia](#): Filma errealitatean oinarritzen da. 1818an Altzon jaio zen Migel Joakin Eleizegiren istorioa da zehazki. 20 urterekin akromegalia gaixotasunaren ondorioz berriro hazten hasi eta hil zen arte ez zen gelditu. Altzoko handiaren istorioa gaur egun arte iritsi da.
- [Kutsidazu bidea, Ixabel](#): Juan Martin euskaldun berri donostiarrak uztailaren erdialdean ekingo zion baserri giroan euskara ikasteari. Hiria utzi eta Asteasuko Irarreta etxondoan Juan Luis eta Ixabel izango ditu zain, euskaltegiko ikasgaiak osatu eta herriko hizkera ondo menperatzeko asmoz.

Telesailak:

- **Altsasu:** 2016ko urriaren 15eko goizaldean, Altsasuko (Nafarroa) taberna batean izandako liskar batean, bertako hainbat gazte eta Guardia Zibileko bi agente - Zerbitzuz kanpo - Eta haien bikotekideak borrokatu ziren. Auzia epaiketara iritsi zen. Fiskalak eraso terroristatzat jo zituen gertakariak eta 12 eta 62 urte arteko kartzela-zigorrek eskatu zituen zortzi akusatuentzat. Epaian, Auzitegi Nazionalak errefusatu egin zituen terrorismo karguak, baina 2 eta 13 urte arteko kartzela-zigorrek ezarri zizkien gazteei.
- **Hondar ahoan:** Marinelen usadio batek dio itsasoko sekretuak lurrian kontaktzen dituenari ahoa hondarrez beteko zaiola, itsasotik lurrera eramandako hitzek urratsak uzten dituztelako. Nerea Garcia inspektorea arrantza portu batera bidaltzen dute patroli baten desagerpena ikertzera. Berehala jabetuko da ez dela ohiko desagerpen bat eta ezer ez dela dirudiena. Iragina beti da inprebisiblea.
- **Alardea:** Lau atalez osatutako fikziozko minisaila da, alardearen gatazkan libreki oinarrituta. Amaiaren (Itziar Ituño) istorioa du oinarri. Haur eskolako irakaslea da, eta auzokide talde batekin batera, bere herriko jaietako alardean desfilatzekeo eskubidearen alde borrokatuko da.
- **Ihesaldia:** Basauriko kartzelan dauden bost presok ihes egin dutela sinestaraziko diote mundu guztiari. Haatik, asteak pasako dituzte teilatu zuloan ezkutatuta, egunez lo eginez eta gaez tunela zulatzen.
- **Marty hil da:** Marty 15 urteko gaztea hiltzen denean, bere aitak bere bizitza digitalaren urratsak jarraitzen ditu. Zergatik hil zen eta nola parte har zezakeen istilu izugarrietan?

TELEBISTA

EITB webguneko [NAHIERAN](#) atalean mota eta estilo guztietako saioak dituzu ikusgai.

Guk batzuk proposatuko dizkizugu:

- **Ur handitan:** Gizartean interesa eta kezka sortzen duten gaiak aztertzen dituen erreportaje saioa.
- **Itxi liburuak:** Gaizka Aranguren kazetariak gidatutako saio honek Euskal Herriko historia jorratuko du.

MUSIKA

- **Badok:** Berriaren euskal musikaren ataria.
- **Entzun:** Musika-albisteak eta agenda.

KULTUR AGENDA

- **Alairen agenda:** Araban euskaraz antolatutako kultur ekitaldien agenda (musika, antzerkia, hitzaldiak, tailerrak, bertso saioak...)

LITERATURA

- **Armiarma:** Literatura sarean (SUSA argitaletxea).
- **Etxe giroan:** Audioliburuak: testuak audio bihurtzen dituzte.
- **Bookteqj:** Mota guztietako euskarazko liburuak dohainik.

Liburuak gustu eta mota guztietakoak izan daitezke eta onena nor bere gustukoa aukeratzea da, nolana ere, hona ekarri dizkizugu proposamen interesgarri batzuk:

- **Bost ahizpa.** (Aitor Arana / Ibaizabal. 2005): Eleberri poliziakoa Helduentzat. Etxe batean banan-banan hiltzen dira.
- **Palestina, zure mina.** (Bilbao, Begoña / Elkar, Bizi taupadak 2004): Gazte literatura. Gazako erietxe batean emakume gazte bat esnatu da. Kolpe bat izan du buruan eta ez du ezer gogoratzen. Apurka-apurka oroimena itzuliko zaio eta bere bitartez ikasiko dugu guk ere Palestinako egoeraren berri.
- **Hau ez da Baztan.** (Dueso, Antton / Aizkorri 2002): Umorezkoa Helduentzat. Kutsidazuren umorea erabiltzen du. Lanketa dauka.
- **Amodioaren gazi-gozoek.** (Aitor Arana / Ibaizabal. 2001): Eleberri melodramatikoa. XX. mendearen hasieran lanerako saldu zuten Miren neskatoa. Gora-behera handiko bizimodua izan zuen baserrian, beti zerbitzari, beti lanean.
- **Connemara gure bihotzetan.** (Gabiria, Julen / Elkarlanean. 2000): Eleberria. Txemak galdu egin du bere neska laguna, Eider, auto-istripu batean. Eiderrek aurreko urtean Irlandara egindako bidaiaren egunkari bat topatuko du Txemak, klabe sekretuz babesturiko disketean. Txema Irlanda mitiko horren bila abiatu da disketa poltsikoan, zer topatuko duen jakin gabe.
- **Miñan.** (Ametz Arzallus Antia / Ibrahima Balde.Susa 2019): Ibrahima kamioi batean zebilen aprendiz Ginean, egun batean amak deitu zuen arte: anaia txikia falta zen etxean. Eta haren bila abiatu zen. Basamortua gurutzatu; pasatzaile, polizia, bahitzaileekin topo egin; egarria, gosea, mina ezagutu. Afrikatik Europarako bidea. Mediterranea zeharkatzen dutenak deshumanizatzea ezinbestekoa da haien heriotzen, kanporatzeen, ilegalizatutako bizitzen gaineko ezaxola zabaltzeko. Baina bizitza horietako bakoitza bakarra da eta, beraz, unibertsa. Eta kontatzeak hori azpimarratzen du. Ibrahima Balderen bizitzaren kronika da nobela hau, hark ahoz eta Amets Arzallus Antiak letraz idatzia.
- **Greta.** Jasone Osoro / Elkar: Amodio fetitxistazko eleberria. Oskarrek badu neskalaguna: Sara. Baina ordu asko pasatzen ditu bere amonaren dendako plastikozko manikiarekin, Gretarekin.

MINTZAMENA LANTZEKO BALIABIDEAK

- [EUSKERABILI](#): Euskaraz era informal batez aritzeko bloga. Beheko partean, ETIKETAK izeneko atalean, askotariko gaiak dituzue, mintza librerako aproposak.
- [AHOZ AHO](#): Ahozkoasuna lantzeko baliabideak: Debaterako gaiak, dilemak, gogoetarako testuak...
- [Mintzamenaren lanketarako proposamenak \(Ikasbil\)](#): Ahozko jarduna lantzeko proposamenak.
- [STORY CUBES ONLINE](#): Istorioak sortzeko jokia. Dadoak bota eta ateratako ikurren arabera istorio bat asmatu.

